

La Palma uhartea.

La Palma uharteak 2426 metroko altuera du lurrian, eta 4000 metro inguruko sakonera. Honen gainean, uhartea osatzen duen eraikuntza bolkanikoa altxatzen da, 166 kilometroko perimetroarekin, gehienak labar harkaiztsuak.

Kanariar artxipelagoko uharterik gazteenetarikoa da, eta bere kostalde malkartsu eta latzean itsaspeko plataforma urria da. Hau dela-eta, leku askotan 50 metroko sakonerara iritsi gaitzake lurretik gertu. Gainera, uhartearen orografiak berak eta beste fenomeno ozeanografiko eta bolkaniko berri batzuek, kobazulo, arku eta tunel ugari eraketa ahalbideratu dute, uhartearen itsas hondoei edertasun berezi bat eskainiz.

Kobazulo hauek mundu ezezagun eta eder bat erakusten digute. Bere biztanleen artean, belakiak, izkirak, otarrainak, karramarro-armiarma eta *Telmatactis* generoko anemona erraldoiak bezalako ornogabe espezie ugari aurkitzen dira.

Beste espezie batzuek ere erabiltzen dituzte babesleku gisa arrakalak; itsas sugeek, bertakoek *picopato* eta *catalufa* deitzen dituzten arrainek, eta beste askok. Hondo harkaiztsu hauetan, salpa eta arrain zurrungari sardak ere auki ditzakegu, beste arrain espezie batzuen artean.

Baina batzuetan, hondo harkaiztsuek izaera mistokoei ematen diete bide, eta azken hauetan oharkabean gertatzeko hondo hareatsuetan ezkututzen diren arraia eta baztangak bezalako organismoak aurki ditzakegu.

Hondo harkaiztsu egonkorrenak hainbat alga komunitateren kokaleku dira, funtsean gorri eta arreak, itsas katea trofikoaren oinarrietariko bat.

Tronpeta arrain bitxiak ur hauetan ugariak diren arkudun eremu harkaiztsuetan aurkitzen dute babesa. Bertan arrain hauen elkarretaratze ikusgarriak aurki daitezke.

Uhartearen sakontasunean barneratzen garen heinean, alga komunitateek hondo hauetan ohiko diren animalia iragazleei ematen diete bide. Belaki, koral eta gorgoniak dira, itxura ilun eta bizigabeko hondo hauek kolorez ziprztintzen dituzten edertasun handiko organismoak. Ornogabe hauekin batera, ohikoak dira eremu hauetan beraien bikaintasun guztia garatzen duten mero eta abadirak.